

MARKINA-XEMEIN / Irakurleen Txokoa ikasturte barriari ekiteko prest dago

Urritik ekainera bitartean hileko bigarren eguenetan batuko dira bibliotekan, liburuaren gainean berba egiteko.

J. FERNANDEZ SAN MARTIN

Markina-Xemeingo herri bibliotekak urtero antolatzen du Irakurleen Txokoa ekimena. Urriaren 14an, eguenean, hasiko dute aurten ikastaroa.

Irakurzalez osatutako taldea da IrakurleenTxokoan parte hartzen duena. Urtero legez, aurten be urritik ekainera bitartean hilean behin egingo dute hitzordua herri bibliotekan. Bertan aurrez aukeratutako eta irakurritako liburuaren gainean egingo dute berba eta hurrengo hilerako irakurri beharreko liburua be aukeratuko dute.

Herri bibliotekak antolatzen duen ekimen horretan literaturan aditua den Isabel Castillo bilbotarra ibiliko da dinamizatzaile legez, mahai-ingurua bideratuz eta liburuaren aukeraketaz arduratuz. Gainera, urtean hiru edo lau idazle be joaten dira Irakurleen Txokora euren liburuari buruz berba egitera. Parte hartu nahi duen edozeinek emon dezake izena herri bibliotekan bertan.

Euskaraz eta gazteleraz

Irakurleen Txokoak talde bi ditu: euskarazkoa eta gaztelerazkoa. Laugarren urtea egingo du aurten lehenengoak eta hirugarrena, ostera, bigarrenak. Hogeina lagun batzen dira talde bakoitzean.

Ordu biko mahai-inguruak egiten dituzte bi taldeek, egun berean. 17:00etan talde batek eta 19:00etan besteak.

Errumaniara begira

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Liburutegiak topaleku ekimenaren barruan sartuko da aurten, iaz legez, Irakurleen txokoa.

Urtean atzerriko herrialde bat hobeto ezagutzea da asmoa, eta aurten Errumaniara begira ipiniko dira. Horregatik, etorkinei buruzko bi liburu irakurriko dituzte aurten Irakurleen Txokoan.